

Familia barneko sexu-abusuen sekretua apurtzen: #MeTooInceste txioaren analisia Iramuteq softwarearen bidez

Nahia Idoiaga Mondragon, Amaia Eiguren Munitis, Maitane Urizar Elorza
eta Maitane Belasko Txertudi
Bilboko Hezkuntza Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Historikoki ezkutatuak eta isilduak izan dira umeen kontrako familia barruko sexu-abusuak. Tabu hori apurtzeko hastapenak sortu dira 2021eko urtarrilean Frantziako Estatuan Twitter plataforman biral egin den #MeTooInceste txioaren bidez. Hori dela eta, ikerketa honen helburu nagusia da hedabide sozialetako eztabaidaren bidez intzestuen abusua nola landu den ulertzea. Orobat, Iramuteq softwareak ahalbidetzen duen Reinert metodoaren bitartez diskurtsoaren analisi lexikala eta antzekotasun lexikalaren azterketa egiteko 15.496 txio batu dira 2021eko urtarrilaren 14tik 21era. Emaitzek argitzera eman dute intzestu-kasuak plazaratzeak maila indibidual eta kolektiboan duela eragina. Orobat, baieztatu da #MeTooInceste mugimendua baliagarria izan dela biktimek isiltasuna hausteko eta gizarteak arazo ikusezin hori aitortzeko espazio bat sortzeko.

GAKO-HITZAK: Sexu-abusua · Haurrak · Intzestua · Twitter · Tabua.

Breaking the secret of sexual abuse in the family: analysis of Twitter's #MeTooInceste movement

Historically, sexual abuse of children within the family has been hidden and silenced. To break this taboo, the beginnings of the #MeTooInceste tweet went viral on the French Twitter platform in January 2021. Therefore, the main objective of this research is to understand how incest abuse has been addressed through the debate on social media. Likewise, from 14 to 21 January 2021, 15,496 tweets were collected for lexical analysis of the discourse and analysis of lexical similarity using the Reinert method enabled by the Iramuteq software. The results have made it clear that incest affects the individual and collective level. It has also been confirmed that the #MeTooInceste movement has served to break the silence of victims and create a space for society to recognize this invisible problem.

KEY WORDS: Sex abuse · Childre · Incest · Twitter · Taboo.

1. Sarrera

Haurren kontrako sexu-abusuei buruzko isiltasuna eta tabua hautsi egin zen Frantzia 2021eko urtarrilaren erdialdean, #MeTooIncestea traolarekin milaka biziraulek haurtzaroan intzestuen biktima izan zirela salatuz. Sortutako aldarrikapen-mugimendua Camille Kouchner-ek (2021) idatzitako *La familia grande* liburuak piztu zuen, non Olivier Duhamel aitaordeak Camilleren anaiari egindako sexu-abusuak salatzen diren. Egun, Fiskaltza salaketa ikertzen ari da, eta Duhamel politologo eta akademikoak bere kargu guztietan dimisioa eman du (Bremmer, 2021).

Duhamel kasuko lurrikararen ondorioz, Nous Toutes elkarte feministak #MeTooIncest kanpaina aktibatu zuen sare sozialetan. Hain zuzen ere, Marie Chenevance (ezizena) 60 urteko paristar batek kaleratutako txioaren berri eman zuten: «5 urte nituen. Festa batean, amaren anaia batek nire xalotasuna aldatu eta bizitza ilundu zidan. Segundo batean 100 urteko pertsona bihurtu nintzen» (Bonet, 2021). Ordu gutxitan, milaka mezurekin biral bihurtu zen txioa, eta herrialde osoko emakume eta gizonek pairatutako abusuen testigantzak plazaratu zituzten (Méheut, 2021).

2. Abiapuntua

2.1. Intzestua haurren aurkako sexu-abusu gisa

Haurren kontrako sexu-abusuaren kontzeptuaren barnean intzestuaz hitz egiten dugunean argi izan behar dugu haren definizioa:

Heldu baten eta haur adingabe baten artean gertatzen diren izaera sexuarekiko aktibitateak non odolkidetasun zuzena duten (aita, ama, aitona-amona) edo anai-arrebak, osaba-izebak, iloba izan daitezkeen pertsonen aldetik jasaten den abusua. Guraso-rola betetzen ari den kideak ere sartzen dira bertan —esate baterako, adopziozko gurasoak, aitaorde/amaordeak, harrera-gurasoak— (Muela, 2007: 231).

Horrenbestez, garrantzitsua da adingabeen aurkako sexu-abusuen aldagai sexuala aztertzeaz gain, botere-asimetriaren abusutzat edo hertsapen-egoeratzat hartzea (Katz eta Hamama, 2017; Horno *et al.*, 2001).

Haurren aurkako intzestu-abusua edo familia barneko sexu-abusua gertatzen da abusatzailea eta abusatua beheranzko lerroan edo horizontalean hurbileko ahaideak edo guraso-harremana duten helduak eta haurra direnean (Greydanus eta Merrick, 2017; Norman, 1993). Abusu mota hau biktimen bizitza markatzen duen esperientzia kritikoa da (Herman, 2000), bereziki aitak egiten duenean (Buchbinder eta Sinay, 2019). Izan ere, intzestuaren biktimek sexu-abusua amaitu ondoren ere abusatzailearen kontrolpean egon izanaren sentsazioa dute (Lorentzen *et al.*, 2008).

Hainbat adituk adierazi dutenez, ez dago intzestu-abusuaren erasotzailearen profil zehatzik; erasotzaile horiek haurren aurkako sexu-erasotzaileen prototipoa hausten dute, gizartearen iruditerian mantentzen dena. Summit-ek bere ikerketetan

(1983) egiaztatu zuenez, adingabeen aurkako sexu-abusuen erasotzailea familiako gizona izaten da, langilea, hezkuntza-maila altuagokoa, erlijiosoagoa eta ohi baino legalistagoa. Ildo beretik, Save the Children erakundeak (2017) ondorioztatu zuen Espainian 2012-2016 urte bitartean aztertutako 203 epai judizialen arabera abusotzaile gehienak (% 86,6) gizonezkoak zirela eta % 13,9 emakumeak. Erasotzaile sexualak hainbat testuingurutatik datoz, eta kasu gehienetan ez dituzte zigortu sexu-abusu delituengatik (Finkelhor, 2009).

2.2. Intzestu-abusuaren arazoa kuantifikatzen

Haurren kontrako intzestua arazo unibertsala da eta, era batera edo bestera, kultura eta gizarte guztietan agertzen da. Fenomeno konplexua da, faktore indibidualak, familiarak eta sozialak konbinatuta sortzen dena (Finkelhor, 2009; Mathews eta Collin-Vézina, 2019).

Haurren aurkako sexu-abusuen maiztasunari dagokionez, oro har, eta intzestuari dagokionez bereziki, ez da erraza arazo horrek herritarrengan duen benetako eragina zehaztea; izan ere, ingurune pribatu batean —familian— gertatu ohi da, eta adingabeak ezgai senti daitezke abusuen berri emateko (Rickett eta Bewaji, 2020). Gainera, gizarte- eta familia-egiturek ere errebelazioa zailtzen dute (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

Horrenbestez, 2009an 22 herrialdeetako 65 azterlanen metaanalisia burutu zuen ikerketa batean (Pereda *et al.*, 2009) emakumeen prebalentzia orokorra % 19,7koa izan zen eta gizonena % 7,9koa. Azterketa horretan, Afrikak zuen haurren sexu-abusuen prebalentzia-tasarik altuena (% 34,4), batez ere Hegoafrikako tasa handien ondorioz; Europak prebalentzia-tasarik baxuena erakutsi zuen (% 9,2); eta Amerikak eta Asiak prebalentzia-tasak % 10,1 eta % 23,9 artean zituzten hurrenez hurren. Ildo beretik, Stoltenborgh et al. autoreek (2011) burututako metaanalisien emaitzek berresten dute haurren aurkako sexu-abusuak mundu-mailako arazoa direla.

Frantziako testuinguruan kokatuz, Ipsos enpresak Face à l'inceste (2020) elkartearentzat egindako ikerketa baten arabera, frantziarren % 10ek adierazi dute intzestuaren biktima izan direla. Pertsona horietatik, % 78 emakumeak ziren eta % 22 gizonak. Adin-tartearen arabera, erantzun hori emandakoen % 12k 18 eta 24 urte artean zituzten, % 19k 15 eta 34 urte artean, % 30ek 35 eta 49 urte artean, % 22k 50 eta 64 urte artean eta % 17k 65 urte baino gehiago. Aipatzekoa da, halaber, proportzio horrek nabarmen egin duela gora, 2009an % 3koa baitzen eta 2015ean % 6koa.

Gainera, frantziarren % 32k aitortu dute gutxienez pertsona bat ezagutzen dutela intzestuagatik abusua jasan izan dituen. Zehatzago, pertsona horiek adierazi dute ezagutzen dutela haur edo nerabe izan zenean biktimizazio hauetako bat jasan duen norbait: % 23k ezagutzen zuten sexu-erasoa jasan zuen norbait, % 19k ukituak edo laztanak jasandako norbait; % 16k haur edo nerabe zenean bortxatu egin zuten norbait; % 15ek exhibizionismo-ekintzak jasan izan zituen norbait; eta, azkenik, % 4k argazki sexualak egitera behartua izan zen norbait.

Orain arte, 15 urtetik beherakoen kasuan, Frantziako Justiziak inguruabar astungarritzat jotzen zituen familia-ingurunekeo sexu-abusuak, eta ez delitutzat (Frantziako Zigor Kodea, 1992, 222-23 artikulua).

2.3. Isiltasuna edo sekretua, intzestuaren sistemako «funtsezko elementua»

Intzestua sekretuak inguratu, babestu eta ahalbidetzen duen abusuzko ekintza bat da (Ford eta Crabtree, 2002) eta hilabeteak edo urteak igaro ohi dira biktimak sekretua apurtzeko aukera izan baino lehen (Testoni *et al.*, 2018). Izan ere, abusatzaileak biktimari egiten dion hertsapen emozional eta fisikoaren helburu nagusia biktimaren isiltasuna bermatzea da. Abusua baita, erasotzailearen arabera, helduak eta haurrak erantzukizun berarekin partekatzen duten sekretua (Callaghan *et al.*, 2015).

Tabua edo intzestuaz hitz egiteko isiltasuna oso indartsua da bai maila pertsonalean bai sozialean (Dussy, 2009), eta gutxienez lau modutan gailentzen da. Lehenik eta behin, indarkeria, mehatxu edo baldintzapen forma har dezakeen zuzendutako isiltzearen bidez (Suyanto *et al.*, 2019). Bigarrenik, horri buruz hitz egiteko hitzik ez egotearen bidez ere gerta daiteke, gogoratu haurrak bortxatzen edo sexu-erasoak jasaten dituztenean, askotan hain dira gazteak, non ez dituzten bortxaketa, erekzio edo genitalitate hitzak ezagutzen, eta ezin dutela definitu gertatzen ari dena (Gul *et al.*, 2020). Hirugarrenik, tabuari desafio egitera ausartzen direnak deskalkifikatuz eta gaitzetsiz, istorioa irudimenari leporatuz, kanpoko presioei edo inork sinetsiko ez diela sinetsaraziz (Barringer, 1992). Azkenik, haurra ziur egon daiteke sekretu horren berri emateak familia desintegratuko duela, eta hori egia da neurri bateraino, familiek krisi sakona bizi baitute gertatutakoaren berri dutenean (Ford eta Crabtree, 2002; Katz eta Hamama, 2017).

Beraz, isiltasuna funtsezko elementu bihurtzen da intzestu-abusuan, eta haurtzaroan sexu-abusuaren biktima diren pertsona askok ez dute abusua urte asko igaro arte errebelatzen (Buchbinder eta Sinay, 2020). Hala ere, abusatutako haurrarentzat (edo gaur egungo bizirauleentzat), isiltasuna haustea, sekretua kontatzea, garrantzitsua da abusua edo haren ondorioak eteteko (Roesler eta Wind, 1994).

Gainera, egiaztatu da biktimek isiltasun hori hausteko konfiantzazko gutxienez bost ezaugarri bilatzen dituztela (Petronio eta Kovach, 1997): (1) sinesgarritasuna (konfiantza eta kointzidentzia); (2) laguntza (maitasun- eta ulermen-sentimenduak); (3) defentsa (abusua edo beste abusu batzuk geldiarazteko jardutea); (4) indarra (errebelazioa emozionalki kudeatzeko gaitasuna); eta (5) babesa (ondorio negatiborik gabea). Gainera, biktima pertsona heldu bihurtzen denean, intzestu-esperientziaren errebelazioa funtsezko zerbait bihurtzen da bere bizitzari eta bere buruari zentzua emateko ahaleginean (Silver *et al.*, 1983) kontakizun-prozesuen bidez (Ford eta Crabtree, 2002). Narratiba horiek eraikitzea eta azaltzeko gai izatea funtsezkoa da bai maila pertsonalean (Buchbinder eta Sinay, 2020), bai maila sozialean; izan ere, gizartean ere tabua apurtzen laguntzen du, arazoaren larritasuna aldarrikatuaz (Ford eta Crabtree, 2002).

2.4. Sexu-abusuak jasan izanaren ondorioak

Haur bakoitzaren subjektibotasuna kontuan izanda ezin dira bateratu sexu-abusuak izandako ondorioak (Aguilar, 2009). Dena den, badago nolabaiteko jarraitutasuna sexu-abusuen adierazpenetan pertsona aurkitzen den garapenaren etaparen arabera (Aguilar, 2009). Horrenbestez, hasieran kalteak jokabide eta kognizioaren arlo oinarriko eragiten badie ere, gero, pertsonaren parte bihurtuko da kaltea (Urizar eta Idoiaga, 2020).

Save the Children erakundeak (2017) plazaratutako txostenean hiru mailatan banatzen dituzte sexu-abusuek haurrengan dituzten ondorioak: ondorio emozionalak, hala nola antsietatea, beldurra, depresioa, gorputzari uko egitea, agresibitatea, autoestimu baxua. Ondorio sexualak, hala nola sexu-ezagutza goiztiarra edo desegokia haien adinerako, jarrera exhibizionistak edo promiskuitatea, jakin-min sexual handiegia, sexu-identitateko arazoak eta masturbazio konpultsiboa. Eta ondorio sozialak, non jokabide antisozialak ager daitezkeen, adibidez, uzkurtasun soziala eta gizarte-trebetasunen urritasuna. Peredak (2010), berriz, fokua jartzen du ondorioen intentsitateetan, zeinak honako faktore hauek baldintzatzen baitituzte: abusu mota, biktima eta erasotzailearen arteko harremanak, biktimaren nortasunaren ezaugarriak eta errebelazioaren ostean biktimak jasotako gizarte-laguntza edo sostengua.

2.5. Sare sozialak tabuak eta isiltasuna hausteko tresna gisa

Gaur egun, sare sozialak komunikazio-ardatz nagusi gisa kokatu dira, eta hainbat motatako indarkeriaren aurkako mobilizatorako eta borrokarako tresna eraginkorrak bihurtu dira (Dragiewicz eta Burgess, 2016; Dragiewicz *et al.*, 2018). Ildo horretan, 2010. urteaz geroztik, nabarmen egin du gora sareen erabilerak, batez ere genero-indarkeriaren kontzientziatorako eta sentsibilizatorako (Arriaza eta Berumen, 2019; Mendes *et al.*, 2018; Turley eta Fisher, 2018). Gainera, aktibista digital berriek Twitterreko *hashtag* edo traolak erabiltzen dituzte kontzientzia kolektiboa sortzeko eta esfera digitalaren barruan protesta soziala antolatzeko (Barker-Plummer eta Barker-Plummer, 2017; Xiong *et al.*, 2019). Traolak oinarri dituzten kanpainak publiko zabalagoarentzat dira eskuragarri eta berehalakoagotzat eta jarraitzeko errazagotzat jotzen dira, nortasun kolektiboa, babesa eta enpatia sustatzen dituztelarik (Turley eta Fisher, 2018).

Hala ere, nabarmentzekoa da horrelako gizarte-mugimenduek *trollinga*, online jazarpena eta *kontrako mugimenduak* ere pairatzen dituztela (Cole, 2015; Phillips, 2015; Sadowski, 2016). Kontraerasoko mugimendu horiek, askotan, erasoak zabaltzen dituzten salaketa-kanpaina arrakastatsuen aurka jotzen dute, baita indarkeriaren biktima jakin batzuen aurka ere; horrela, lekukotasunen balioa ahuldu eta biktimak eta ekintzaileak isilarazten saiatzen dira (Mendes *et al.*, 2018; Powell eta Henry, 2017).

Salaketa-kanpaina horien artean, #MeToo kanpaina izan zen aitzindaria edo nazioarteko kontzientzia sortzen ezagunenetako bat (Bhattacharyya, 2018). 2017an, #MeToo traola zabaldu zen Twitterren, Alyssa Milanok *hashtag* gisa erabili zuenean

Harvey Weinstein Hollywoodeko ekoizlearen sexu-erasoaren salaketei erantzunez traola gisa erabili zuenean. Horrela, sare sozialetako partaideak esperientzia propioak plazaratuaz sexu-indarkeriaren arazoaren garrantzia ezagutzera emateko mugimendu horretara batzera animatu zituen (Mendes *et al.*, 2018). Traola hori 12 milioi aldiz erabili zen lehen 24 orduetan (CBS, 2017).

Xiong *et al.* (2019) autoreek #MeToo mugimenduan erabilitako traolen markoak identifikatu zituzten analisi tematikoaren bidez. Hori egitean, sei helburu nagusi zituztela ikusi zuten: (1) ekitaldiak zuzenean edo zeharka mugimenduarekin lotzea, (2) mugimendua bera ezagutaraztea, (3) ekintzak bideratzea, (4) ekitaldi baten berariazkoak izatea (hau da, errepikariak), (5) biktimak aipatzea edo babestea eta (6) ekintzaileak aipatzea. Helburu horiek guztiak bat datoz sexu-indarkeriari buruzko isiltasuna haustearekin eta biktimizatutako pertsonen narratiba ikusgarriago egitearekin.

Gainera, duela gutxi egindako ikerketen arabera, salaketa publikoen kanpaina arrakastatsuek beste biktima batzuk bultzatu dituzte sekretua haustera (Arriaza eta Berumen, 2019; Prasad, 2018). Testuinguru horretan, azken urteotan umeen aurkako sexu-abusuak salatzeke traolak sortzeko saiakerak egon dira, hala nola #MiPrimerAcoso (de Moraes *et al.*, 2017; Ruiz-Navarro, 2016) edo #cuentalo bezalakoak, nahiz eta bakar batek ere ez den intzestuan espezifikoki zentratu eta ez duen #MeTooIncest-ek bezalako eragin sozialik izan herrialde batean.

Beraz, ikerketa honen helburu nagusia da Twitterren #MeTooInceste traolari buruzko diskurtsoa aztertzea, hedabide sozialetako eztabaidaren bidez intzestuaren abusua nola tratatu den ulertzeko. Hori egitean, jendeak haurren kontrako sexu-abusuaren arazoa sinbolikoki nola eraiki duen eta, bereziki, intzestu-abusuarekin nola konprometitu den azal dezaketen elementu nagusiak identifikatzen saiatuko gara. #MeTooInceste mugimenduak intzestu-abusuaren biktimizazioa bistaratuko duela espero da, baina baita mugimenduari berari, haren eragileei eta ekintzarako deiei buruzko aipamenak ere, antzeko beste mugimendu batzuek egin duten bezala.

3. Metodologia

3.1. Ikerketaren diseinua

Ikerketa honetan metodologia kualitatiboa erabili da, zehazki txiolariek intzestuari buruz eraikitako diskurtsoa azertuaz. Izan ere ikuspegi ezberdinetako ikertzaileek (konstruktibista sozialek, postmodernoeak edota postestrukturalistek) hizkuntzaren analisiari emaniko garrantzia partekatzen dute ezagutza eta esanahia nola eraikitzen diren ulertzeko ikerketa-iturri gisa (Wigginton & Lafrance, 2019). Hau da, tradizionalki, hizkuntza gure barne-pentsamendu, -emozio eta -esperientziak adierazteko balio duen tresna pasibotzat hartu izan da (Burr, 1995), baina lehen aipaturiko ikuspegiek eta bereziki ikerketa feministan oinarritutakoek aldarrikatu dute ezen hizkuntzek baina bereziki «diskurtsoek» azaltzen dutela nola islatzen eta indartzen dituzten nagusi diren botere-sistemak testuinguru sozial eta politiko jakin batean eskuragarri dauden terminoek eta kontzeptuek (Marecek, 2003; Radtke, 2017).

Beraz, leku eta une jakin batean eskuragarri dagoen hizkuntzak edo diskurtsoak «errealitatea kontsideratzen duguna sortzen du» (Marecek, 2003: 62) eta sare sozialetan oinarritutako ikerketak errealitate hori plazaratzen du. Horregatik ikerketa honen diseinuan sare sozialetan ernaturiko #MeToolnceste mugimendua aztertuko da plazaratutako diskurtsoak aztertuaz.

3.1.1. Lagina

Lagina 15.496 txiok osatu zuten. Zehazki 2021eko urtarrilaren 14tik 21era #MeToolncest traola zuten eta frantsesez idatzita publikatu ziren txio guztiak

3.1.2. Datu-bilketa eta tresnak

Twitterreko lagina sortzeko, API streaming bidez jaso ziren txioak, horretarako Postman programa erabilita. Aukeratzeko irizpideak 3 izan ziren: 1) Data: 2021eko urtarrilaren 14tik 21era. 2) Traola: #MeToolnceste traola izan behar zuten. 3) Hizkuntza: frantsesez idatzitako txioak soilik aukeratu ziren. #MeToolncest traola zuten eta frantsesez idatzita zeuden txio guztiak arakatu eta jaso ziren 2021eko urtarrilaren 14tik 21era. Guztira, 15.496 txio batu ziren Twitterreko diskurtsoaren analisi lexikala egiteko.

3.1.3. Datuen analisisia

Bildutako txioen analisi lexikala egiteko Reinert metodoan oinarritutako Iramuteq softwarea erabili da (Reinert, 1983; 1990), testu-analisietan ikertzaileen interpretazioaren subjektibotasunari egotzi ohi zaizkion fidagarritasun- eta baliozkotasun-arazoak ekiditeko (Klein eta Likata, 2003; Reinert, 1996). Software horren helburu nagusia da testu bat kuantifikatu eta haren egitura garrantzitsuenak azalerratez, testu-datuetakoinformazio oinarritzkoena baliatuz. Horrenbestez, softwareak oinatz lexikalen errepikapenaren bidez (hitzen hurrenkera), testuaren kuantifikazioa egiten du, parte-hartzaileek partekatutako hitz ohikoenak identifikatzeko eta sailkatzeko (Diaz-Iso *et al.*, 2019; Idoiaga *et al.*, 2016 Egitura horiek hitzek testuan duten banaketarekin zuzenki lotuta daudela frogatu da (Reinert, 1996), banaketa hori ia inoiz zorizkoa ez delarik. Deskribatzea, sailkatzea, asimilatzea edota testu bat automatikoki sintetizatzea dira Iramuteq softwarearen interes nagusiak.

Softwareak burututako analisiaren lehenengo urratsa zera da: corpusa testuinguruko oinarritzko unitatetan (Elementary Contextual Units, ECU) banatzea, zeinak esaldi batez edo biz osatuta dauden (30-50 hitz inguru) (Kronberger eta Wagner, 2000). ECUak eta hitz-erroak gurutzatu egin dira kontingentzia-taula bat sortzeko, zeinak hiztegiaren banaketa azalduko duen ECUekiko. Kontingentzia-taula horretatik abiatuta, distantzia karratuen matrize bat sortzen da, non, bi ECU hurbilekoak izango diren, aztertutako hitzen bat partekatzen badute (Klein eta Licata, 2003; Reinert, 1996). Ondoren, kluster-analisi hierarkiko beherakor bat egiten du Iramuteq-ek aipaturiko distantzia karratuen matrizearekin.

Reinert metodoarekin egindako beste ikerketa batzuetan bezala (Vizeu eta Bousfield, 2009; Idoiaga eta Belasko, 2018), klase bakoitzeko hitz garrantzitsuenak hiru irizpideren bidez sailkatu dira: 1) hitzaren errepikapertasunaren maiztasuna


klasean bertan 5 baino handiagoa izatea; 2) Khi karratuaren asoziazio-probaren balioa klasearekiko $X^2 \geq 3.89$ [$p = .05$]; $df = 1$ baino handiagoa izatea; eta 3) hitz horren % 50 edo gehiago klase horri egokitzea.

Horrela, ikertzaileak klase eta estatistika-irizpide batzuk lortzen ditu hitz tipiko eta testu tipikoen segmentu (kasu honetan txio) moduan. Horrek oinarria eskaintzen du klaseak edo gai nagusiak mundu lexikal gisa interpretatzeko (Schonhardt-Bailey, 2013). Azken fase horretan, mota bakoitzeko etiketak edo izenburuak sortzeko, ikerketa honetan prozesu sistematiko bat gauzatu da. Prozesu horretan, ikertzaileetako bik klase bakoitza modu independentean izendatu dute, hitz eta txio elkartuetan oinarrituta. Hirugarren ikertzaileak azken etiketa bat sortu du eta hiru ikertzaileek onartu dute.

Bestalde, antzekotasun lexikalaren azterketa ere egin da Iramuteq-en bidez. Analisi mota horrek corpusa bere osotasunean aztertzen du, erantzunak parte-hartzaile (subjektu) batengandik edo beste batengandik datozen kontuan hartu gabe. Orobat, zenbat eta gehiagotan tratatu bi elementu modu berean, orduan eta hurbilago egongo dira aipatutako objektuaren irudikapen-egituran (Molina-Neira 2017).

4. Emaitzak

Corpus osoak 388.032 hitz ditu, horietatik 16.390 hitz bakarrak direlarik. Zehazki, beheranzko analisi hierarkikoak 10.840 segmentu eta 3 klasetan banatu du corpusa. Analiaren emaitzak 1. irudian ageri dira. #MeToolnceste mugimenduarekin lotuta Twitterren argitaratutako diskurtso-eredu nagusiak identifikatu ditu analisiak. Patroi bakoitza hitz tipikoen eta testu-segmentuen (txioak) multzo batek irudikatzen du, eta klasea deitzen zaio.



1. irudia. Txioen corpusaren beharazko taldekatze hierarkikoaren dendrograma asoziazio handiena duten hitzekin 2 (1), $p < 0,001$, Reinert metodoaren bidez ateratakoak (Iturria: sorkuntza propioa).

Lehenengo klaseak % 33,08ko pisua izan zuen eta bere baitan bildu zituen biktimen errebelazioak; ondorioz, *Biktimen errebelazioak: sekretua hausten* izenez izendatua izan da. Errebelazio horretan abusatzailearen figura eta biktimaren adina azpimarratzen dira, bai eta ondorioz biktimak bere bizitza guztian zehar jasan behar izan dituen sintomatologiak. Honakoak ditugu klase honetan ageri diren txio batzuk:

«Osaba batek ohetik atera ninduen 6 urte nituenean, eta bere mihia ahoan jarri zidan. Biluztu egin ninduen. Gauza handi bat sentitu nuen ipurmasailen kontra, begiak irekitzen ez banituen orduan bera baino indartsuagoa nintzela pentsatu nuen #MeTooInceste».

«Nire aita nik 16 urte eta 12 urteko anaiaren aurrean masturbatu zen klinikako gela batean nire amaginarrebak korrika egin zuen eta nik aitaren begiak sentitu nituen niri begira burua altxatu nuenean #MeTooInceste».

«1977an izan zen. Nik 5 urte nituen, berak 39. Lehengusu bat zen. 32 urte #AmnesiaTraumática 2011n salaketa bat aurkeztu nuen. Preskripzio-epea 10 urtekoa zen, gertakaria jazo eta gero. Nire salaketa ez zen onartu #Jenaipaspuporterplainte #MeTooInceste #StopPrescription #Stopimpunite».

«11 eta 14 urte bitartean nituen. Nire anaia zen. 57 urte ditut eta iragan honen biktima izaten jarraitzen dut. Alabaz gain, ez dut inoiz ezer eraiki. Nire bizitza soziala, profesionala eta emozionala porroten eta isolamenduaren segida bat da #Metoolnceste».

«4, 5, 13, 15, 17 urte zituzten. Osaba-izebak, aitona-amonak, lehengusuak edo familiako lagunak ziren. Nire pazienteak ziren edo dira. Sinesten dizuet eta eskerrak eman nahi dizkizuet zuen konfiantzagatik #SiTuParlesJeTeCrois#Metoolnceste».

«#Metoolnceste Txikitan bortxatu ninduten... Sei urterekin nire osabak. Gurasoek amonaren etxera joatea erabaki zutenean, ikaratuta nengoan... Gurasoek zalantzak zituzten, inork ez zuen ezer egin... Tabu gaia...».

Bigarren klaseak % 22,86ko pisua izan zuen eta *Twitterren oihartzuna: eskandalu publikotik eratorritako tsunamia* izenez izan da izendatua. Bertan Camille Kouchnerren liburuaren publikaziotik abiatuta sare sozialetan sortutako mugimenduari egiten zaio aipua, baita lekukotasun hauek maila sozialean intzestua plazaratzeko duten balioari ere. Hemen klase honetako txio batzuk:

«Lekukotasun hunkigarrien tsunami 1. Gehienek #intzestu oso gazteak jasan dituzte. Eta orain zer egiten ari da @gobiernoFR @AdrienTaquet lehentasun politikoa izan dadin #changerlaloi #StopImpunite #StopPrescription #SeuilDAGE».

«Ikusten dut #MeTooInceste txioen uholde hau, eta emozioa nire bihotzaz jabetzen da. Hitzetik askatze horrek ez zuen jadanik sortzen, edo ozta-ozta... 20 urte daramatzat testigantza hauek entzuten. 20 urte daramatzat horri buruz idazten, ahots horiek azkenean entzun daitezten. Pixka bat, behintzat».

«Gaur gauean, #MeTooInceste izeneko lekukotasun mordoa aurkitu dut. Bat-batean, kalkulu hau egiten dut: frantsesen % 5 eta % 10 artean intzestuaren biktima dira haurtzaroan. Bravo zure kemenagatik. Zuekin gaude. Hautsi dezagun tabu hau».

«Camille Kouchnerrek #LaFamiliaGrande idatzi zuen bere anaiaren intzestuari buruzko isiltasunetik askatzeko. Zure liburuak bidea ireki die askori #MeTooInceste bidez. Eskerrik asko liburu honengatik. Babes handia zuei, biktimei, isiltasun hau apurtzeko kemena baituzue».

«Sare sozialetan, #incesto delakoaren inguruko testigantzak. #LaFamiliaGrande #CamilleKouchner liburuak milaka lagun animatu ditu traolarekin sare sozialetan lekukotasuna ematera #MeTooInceste».

Azkenik hirugarren klasea guztietan pisutsuena izan zen % 44,06ko pisuarekin eta *Tabua apurtzeko eta haurrak babesteko aldaketa sozialen beharra* gisa izan da izendatua. Klase honetan txiolariak Frantziako Estatuan hainbat aldaketa egiteko eskatzen dute, besteak beste legediaren aldaketa bat delituak ez preskribatzeko, edota umeeekin lan egiten duten profesionalak formatzeko. Horrez gain, intzestua tabu soziala dela ere azpimarratzen da eta amorrua edo lotsa bezalako emozioekin lotzen da. Hemen klase honetan bildutako txioetako batzuk:

«Mesedez, sinatu eta partekatu eskaera. Adrien Taquet: indarkeriari buruzko prestakuntza sistematikoa haurrekin lan egiten duten profesionalentzat #MeTooInceste - Sinatu eskaera!».


«Mila esker jasan dituzten #sexuabusuei buruzko lekukotasuna ematen ari diren pertsoneri... infernu batetik igaro dira... bizitza osorako trauma bat. #metooinceste #inceste stop aux #criminels... stop à l' #imprescriptibilité !! @Facealinceste @enfants_sos».

«Ahotsa berotzen ari da, baina askotan biktimak ez dira hitz egitera ausartzen. Tabu bat altxatzen da: gizarteak intzestuekin amaitu nahi du, eta askotan jokabide pedofiloa ere bada! #MeTooInceste».

«Hitz egitea gauza bat da. Baina jakin behar duzu norekin ari zaren hizketan. Intzestua = isiltasunaren legea! Tabua! #MeTooInceste filmari esker, ez naiz beldur, nire anaia beldurtu dadila!».

Antzekotasun lexikalaren analisia

Bigarrenik, klasetan banatuzetik harago corpuseko hitz guztien arteko koburutazioak islatuko zituen irudi bat sortzeko, antzekotasun lexikalaren analisi bat egin da. Corpusaren hitzak plano komun batean nola zeuden lotuta aztertzea da asmoa. Horretarako, antzekotasun lexikalaren analisia 350 baino maiztasun handiagoa duten hitzekin bakarrik egin da (MeTooInceste hitza kenduta). Eraitza 2. irudian ikus daiteke.



2. irudia. 350 baino gehiagoko maiztasuna zuten hitzekiko antzekotasun lexikalaren analisiaren emaitzak.

Analisiko zuhaitzak hainbat nukleo ditu, lehenik lekukotasunak, Twitterren estalgabetzen ari diren txioen isla. Honi lotuta intzestua agertzen da eta bertatik eratorriz umeak jasotzen duen sexu-biolentzia. Era berean, ideia hauei lotzen zaie babestua izatearen garrantzia ere biolentzia horri aurre egiteko gako gisa.

Intzestuari loturik biktima agertzen zaigu eta berak behar duen adorea hitz egin eta isiltasuna apurtzeko. Azkenik, irudiaren behealdean erasotzaileak ditugu, bortxatzaileak, familiako kideak eta baita sekretua mantentzera behartu dituztenak ere. Horregatik azken adar horretan delituaren preskripzioarekin bukatzea ere eskatzen da.

5. Eztabaida eta ondorioak

Ikerketa honek Twitterren #MeTooInceste mugimenduaren inguruan sare sozialek duten diskurtsoa aztertzea proposatu du. Emaitzek erakutsi dute mugimendu horren garrantzia, bai biktimak maila pertsonalean sekretua adieraztera animatzeko, bai gizarte garaikidearen tabu handienetako bati buruz publikoki hitz egiteko ere (Sharaby, 2019).

Lehenik eta behin, klusterren azterketatik ateratako diskurtso-ereduei jarraituz, ikusten da kasu honetan, #MeToo-ren antzeko beste mugimendu batzuetan gertatu den bezala, kasu publiko bat izan dela biktimen lekukotasun-kate bat sustatu duen txinparta. Egoera hau agerian geratu da lehen klasean (Mendes *et al.*, 2018; Xiong *et al.*, 2019). Intzestua kasuan, biktimak isiltasuna apurtzera ausartzeak, modu anonimoan bada ere, balio bikoitza du, pertsonala eta soziala, isiltasuna indarkeria mota horren funtsezko elementua baita bi eremuetan (Dussy, 2009; Roesler eta Wind, 1994).

Maila indibidualean, bigarren klasean jasotako testigantzak tratu txarrak jasan dituzten pertsona askorentzat errebelazio fase baten hasiera izan daitezke. Jakina, txio batean isiltasuna haustea ahalduzaitza izan daitekeen arren (Kende *et al.*, 2020), ez da gauza bera narratiba bat edo intzestua integratzen duen bizitza-historia bat eraikitzea, beste hori prozesu luzea baita (Buchbinder eta Sinay, 2020). Baina, agian, mugimendu horrek lagun diezaieke pertsona askori lehen errebelazio hori egiteko aukera sentitzen edo, gutxienez, horretarako ingurune seguru bat sortzen. Izan ere, ikerketa honetako txioek errebelaziorako beharrezkoa den ingurunearen oinarritzko osagai batzuk jasotzen dituzte, hala nola testigantzek sinesgarritasuna eta babesa jaso dutela (Petronio eta Kovach, 1997).

Gainera, Twitterreko diskurtsoak gizarte-mailan intzestuari buruzko isiltasuna haustearen garrantzia ere azpimarratu du, bigarren eta hirugarren klaseetan ikusi den bezala. Indarkeria mota horri buruz dagoen tabuaren eraginez (Barringer, 1992) gure gizarteak haurren aurkako sexu-indarkeria gutxiesten jarraitzen du, bai haien maiztasunarekiko, bai ekintza bortitz horiek haurrengan izan ditzaketen ondorioekiko ere. Kontuan izan behar da haurrak, fisikoki eta emozionalki, helduen mende daudela (Mullin, 2014) eta, mendekotasun horren eta zaurgarritasun-maila handiaren ondorioz, helduen biktimizazio berberak jasateaz gain, biktimizazio propioak jasaten dituztela (Pereda, 2019). Era berean, indarkeria hori onartzen ez den gizarte-sistema baten ondorioz, haurrak are ahulagoak eta babesgabeagoak dira (Gul *et al.*, 2020).

Babesgabetasun horren aurrean, mugimendu horren baitan hainbeste biktimek jasandako abusuak errebelatzearen beste funtsezko faktore bat biktimen defentsa izan daiteke, hau da, adierazpen horrek abusua edo beste abusu batzuk geldiarazteko balio dezakeela uste izatea (Petronio eta Kovach, 1997). Hirugarren klasean ikus daitekeenez, mugimendu sozial horrek ekintzarako deiak ere eragin ditu, bereziki Frantziako Zigor Kodea berrikusi eta berregituratzeko. Horren harira Giberti eta besteek (1998) azpimarratu dute intzestuak tipifikazio penal propio bat ere beharko lukeela bere berezitasunak direla medio, haurren kontrako sexu-abusuen aldean desberdina izan behar duena.

Gainera, maila klinikoan intzestua bezalako gertaera traumatikoez hitz egin behar den bezala, gizartean ere komunikazio-sareak ezarri behar dira tabuak izan diren edo gizarteak isilarazi dituen gertakarien esanahia eta dimentsioa eraikitzeko (Pennebaker eta Harber, 1993). Sare sozialak, Twitter bereziki, eztabaidarako sortutako tresnak dira, eta, beraz, sortutako diskurtsoak intzestuaren abusuaren arazoaren funtsezko alderdiak ulertzen lagun dezake (Westerman *et al.*, 2014). Izan ere, ikerketa honen emaitzek egiaztatu dute mugimendu horrek funtsezko helburuak partekatzen dituela indarkeria salatzeko kanpaina arrakastatsuekin, hala nola biktimei babesa eta ahotsa ematea, aldaketarako ekintza bultzatzea, mugimendua bultzatu zuten gertaerei buruz hausnartzea edo mugimenduaren beraren irismenaren kronika egitea, bigarren klasean ikus daitekeen bezala (Xiong *et al.*, 2019).

Maila praktikoan, ikerketa honek intzestuaren gaitza ikusarazteko espazio seguruak sortzearen garrantziaz hausnartzera behartzen gaitu. Isiltasuna edo sekretismoa hausteko estrategiak bilatu behar dira, bai maila pertsonalean bai sozialean. Kanpaina hori lehen urratsa izan daiteke, baina beren abusuaren berri eman duten biktimen sufrimendua bideratzen ez bada, berriz biktimizazioko arriskua dago. Horretarako, terapia profesionalaz gain, laguntza-taldeak sor litezke sare sozialen bidez erreparazio sozial bat bilatzeari begira.

Gizarte gisa, funtsezkoa izango da haurrak babestuko dituen legeria defendatzea, ikerketa honetako analisiek adierazi duten bezala. Zehazki, gizarteak figura profesional babesleak behar ditu (gaian formazio esanguratsua jasotako irakasleak, pediatriak, gizarte-hezitzaileak, psikologoak, abokatuak, gizarte-langileak, etab.), intzestua detektatzeko edo, gutxienez, eremu seguruak sortzeko gai direnak, intzestuaren berri emateko eta haren aurrean nola jokatu jakiteko. Izan ere, lan honetan jasotako testigantzek diotenez, azken hamarkadetan ez da horrelakorik egin.

Gainera, aztertutako diskurtsoak agerian utzi du sareek eragina dutela agenda politiko eta mediatikoetako bazterketen aurkako borrokan eta kontzientziazioan. Izan ere, intzestuak esparru mediatikoaren diskurtsoan txertatzea izan da mugimendu horren lorpen handienetako bat, gure emaitzek islatzen duten moduan.

Azkenik, azterlan honek agerian utzi ditu biktimei ahotsa ematen dieten diskurtso digitalen aukera autoadierazkorrek eta banakako bizipenetatik ekintza-estrategia eraginkorrek sortzeko duten ahalmena (Sánchez-Duarte & Fernández-Romero, 2017). Izan ere, hainbat egilek adierazi dutenez, Interneten hobekien funtzionatzen duten eduki feministak lehen pertsonan idazten direnak eta edonor identifikatuta senti daitekeen eguneroko esperientziak politizatzen dituztenak dira (Gas, 2019; Keller, Mendes, & Ringrose, 2018).

Beraz, agerikoa dirudi sare sozialak erreferentziazko gune bihurtu direla aldarrikapen-mugimenduentzat. Izan ere, emaitzek iradokitzen dute Twitterreko diskurtsoak bizirauleentzako komunitate-zentzua indartzen duela, zabalkundea demokratizatzen duela eta ikusgarritasuna ematen duela. Halere, sareen ikerketa honek hainbat muga izan ditzake. Hasteko Twitterreko erabiltzaileak ez dira gizarte osoaren isla eta, beraz, gizarte guztiko taldeen ideiak ez dira diskurtso horietan islatuta egongo. Bestalde, aztertutako denbora-epea ere laburra da, azterketa hau

osatzeko beharrezkoa litzateke hilabete edo urteetan zehar gaiaren jarraipenarekin jarraitzea.

Frantziako Estatuak ez da intzestu-kasuak dituen herrialde bakarra. Herrialde guztietan gertatzen da ia berdin, Espainiako Estatuan ere horrela adierazi du Save the Childrenek (2012, 2017). #MeTooIncest mugimendua baliagarria izan da, gutxienez, biktima askok hamarkadetan zehar torturatu dituen mina libratzeko eta gizarteak arazo ikusezin hori aitortzeko espazio bat sortzeko. Funtsean, #MeTooIncest kanpainaren arrakasta eztabaidaezina da, eta teknologia digitalek ekintza kolektiboaren eta gizarte-mobilizazioaren eraldaketan duten eraginaren adibide argia da, sare sozialek zabalduetako diskurtso ireki batekin. Orain, arrakasta elkarrekin kudeatzea eta eskaerak agenda partekatu batean sartzea da erronka, baita haurren kontrako abusu sexualen eta bereziki intzestu-abusuen aurkako aldarrikapena nazioartekotzea ere.

6. Erreferentziak

- 92-684 Legea, 1992ko uztailaren 22koa, pertsonen aurkako krimen eta delituen errepresioari buruzko Zigor Kodearen xedapenak aldatzen dituena (2021eko apirilaren 21eko 2021-478 Legea aldatua, adingabeak sexu-delituetatik eta intzestutik babestekoa), Frantzia, <<https://www.legifrance.gouv.fr/jorf/id/JORFTEXT000000540288>> (Kontsulta: 2021-04-22).
- Aguilar, M. (2009): «Abuso sexual en la infancia», *Anales De Derecho*, 27, 210-240.
- Arriaza, K. eta Berumen, R. (2019): «#MeToo in Spain and France: Stopping the abuse towards ordinary women», *Interactions: Studies in Communication and Culture*, 10(3), 169-184. https://doi.org/10.1386/iscc.10.3.169_1
- Barker-Plummer, B. eta Barker-Plummer, D. (2017): «Twitter as a feminist resource: #YesAllWomen, digital platforms, and discursive social change», in Jennifer Earleta Deane Rohlinger (ed.), *Social movements and media*, Emerald Publishing Limited, 91-118.
- Barringer, C.E. (1992): «The survivor's voice: Breaking the incest taboo», *NWSA Journal*, 4-22.
- Bhattacharyya, R. (2018): «#metoomovement: An awareness campaign», *International Journal of Innovation, Creativity and Change*, 3(4), 1-12.
- Bonet, E. (2021): «El "final de la ley del silencio" para las víctimas de incesto en Francia», *Público*, <<https://www.publico.es/sociedad/final-ley-silencio-victimas-incesto-francia.html>> (Kontsulta: 2021-01-26).
- Bremmer, C. (2021): «Olivier Duhamel resigns after accusations of incest with steps on», *The Times*, <<https://www.thetimes.co.uk/article/leading-french-political-analyst-resigns-after-accusations-of-incest-with-stepson-9r250ctd0>> (Kontsulta: 2021-01-05).
- Buchbinder, El. eta Sinay, D. (2020): «IncestSurvivors' Life-Narratives», *Violence against women*, 26(8), 803-824. <https://doi.org/10.1177/1077801219847295>
- Burr, V. (1995): *An introduction to social constructionism*, Routledge.
- Callaghan, J.E.; Alexander, J.H.; Sixsmith, J. eta Fellin, L.C. (2015): «Beyond "witnessing": Children's experiences of coercive control in domestic violence and abuse», *Journal of interpersonal violence*, 33(10), 1.551-1.581. <https://doi.org/10.1177/0886260515618946>

- CBS News (2017): «More than 12M “MeToo” Facebook posts, comments, reactions in 24 hours», *CBS News*, <<https://www.cbsnews.com/news/metoo-more-than-12-million-facebook-posts-comments-reactions-24-hours/>> (Kontsulta: 2021-02-20).
- Cole, K. (2015): «It’s likes he’s eager to be verbally abused: twitter, trolls, and (en) gendering disciplinary rhetoric», *Feminist Media Studies*, 15(2), 356-358.
- de Moraes, G.H.S.M.; Boldrin, J. eta Soarea-Silva, D.(2017):«Participation in Brazilian feminist movements on social networks: a study on the campaign Meu Amigo Secreto (my secret Santa)», *Informação eta Sociedade*, 27(2).
- Díaz-Iso, A.; Eizaguirre, A. eta García-Olalla, A. (2019): «Extracurricular activities in higher education and the promotion of reflective learning for sustainability», *Sustainability*, 11(17), 4.521.
- Dragiewicz, M. eta Burgess, J. (2016):«Domestic violence on #qanda: The ‘man’ question in live Twitter discussion on the Australian broadcasting corporation’s QetaA», *Canadian Journal of Women and the Law*, 28(1), 211-229.
- Dragiewicz, M.; Burgess, J.; Matamoros-Fernández, A.; Salter, M.; Suzor, N.P.; Woodlock, D. eta Harris, B. (2018): «Technology facilitated coercive control: Domestic violence and the competing roles of digital media platforms», *Feminist Media Studies*, 18(4), 609-625.
- Dussy, D. (2009): «Inceste: la contagion épidémique du silence», *Anthropologie et sociétés*, 33(1), 123-139.
- Echeburúa, E. eta Guerraechevarría, C. (2015):«Abuso sexual en la infancia: víctimas y agresores», Ariel.
- Finkelhor, D. (2009): «The Prevention of Childhood Sexual Abuse», *The Future of Children*, 19(2), 169-195.
- Ford, L.A. eta Crabtree, R.D. (2002): «Telling, re-telling and talking about telling: Disclosure and/as surviving incest», *Women’s Studies in Communication*, 25(1), 53-87.
- Gas, S. (2019): «En qué contribuye el feminismo producido en las redes sociales a la agenda feminista?», *Dossiers Feministes*, 25, 147-167.
- Giberti, E. (1998): «*Incesto paterno-filial: una visión multidisciplinaria: perspectivas históricas, psicológicas, jurídicas y forenses*», Editorial Universidad.
- Greydanus, D.E. eta Joav-Merrick, M.D. (2017): «Incest: child sexual abuse within the family», *International Journal of Child and Adolescent Health*, 10(3), 295-304.
- Gul, H.; Gul, A.; Yurumez, E. eta Öncü, B. (2020): «Voices of adolescent incest victims: A qualitative study on feelings about trauma and expectations of recovery», *Archives of Psychiatric Nursing*, 34(2), 67-74.
- Herman, J.L. (2000): «*Father-daughter incest: With a new afterword*», Harvard University Press.
- Horno, P.; Santos, A. eta Molino, C. (2001): «Abuso sexual infantil: manual de formación para profesionales», *Save the Children España*, 1-355.
- Idoiaga, N.; Gil De Montes, L. eta Valencia, J. (2016): «Communication and representation of risk in health crises: the influence of framing and group identity», *Revista de Psicología Social*, 31(1), 59-74.
- Idoiaga I. eta Belasko, M. 2019: «Zer emozio pizten dizkigu hilerokoak?», *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 108, 79-94.
- Ipsos (2020): «Les français face à l’inceste», *Face à l’inceste Association*, <http://aivi.fr/doc/Ipsos_Face_a_l_inceste_Rapport.pdf> (Kontsulta: 2021-03-22).
- Katz, C. eta Hamama, L. (2017): «From my own brother in my own home: Children’s experiences and perceptions following alleged sibling incest», *Journal of Interpersonal Violence*, 32(23), 3.648-3.668.

- Keller, J.; Mendes, K. & Ringrose, J. (2018): «Speaking 'unspeakable things': Documenting digital feminist responses to rape culture», *Journal of Gender Studies*, 27(1), 22-36.
- Kende, A., Nyúl, B.; Lantos, N.A.; Hadarics, M.; Petlitski, D.; Kehl, J. eta Shnabel, N. (2020): «A needs-based support for #MeToo: Power and morality needs shape women's and men's support of the campaign», *Frontiers in psychology*, 11, 593.
- Klein, O. eta Licata, L. (2003): «When group representations serve social change: the speeches of Patrice Lumumba during the Congolese decolonization», *Br. J. Soc. Psychol*, 42, 571-593. <https://doi.org/10.1348/014466603322595284>
- Kouchner, C. (2021): «*La familia grande*», Le Seuil.
- Kronberger, N. eta Wagner, W. (2000): «Keywords in context: Statistical analysis of text features», in W. Bauer eta G. Gaskell. (ed.), *Qualitative researching with text, image and sound: A practical handbook*, Sage, Thousand Oaks, 299-317.
- Lorentzen, E.; Nilsen, H. eta Traeen, B. (2008): «Will it neverend? The narratives of incest victims on the termination of sexual abuse», *Journal of Sex Research*, 45, 164-174. <https://doi.org/10.1080/00224490801987473>
- Marecek, J. (2003): «Dancing through minefields: Toward a qualitative stance in psychology», in P.M. Camic, J.E. Rhodes eta L. Yardley (ed.), *Qualitative research in psychology: Expanding perspectives in methodology and design*, American Psychological Association, 49-69.
- Mathews, B. eta Collin-Vézina, D. (2019): «Child sexual abuse: Toward a conceptual model and definition», *Trauma, Violence, and Abuse*, 20(2), 131-148. <https://doi.org/10.1177/1524838017738726>
- Méheut, C. (2021): «Incest Scanda lSets Off a New #MeTooMovement in France», *The New York Times*, <<https://www.nytimes.com/2021/01/18/world/europe/duhamel-france-incest.html>> (Kontsulta: 2021-03-15).
- Mendes, K.; Ringrose, J. eta Keller, J. (2018): «#MeToo and the promise and pitfalls of challenging rape culture through digital feministactivism», *European Journal of Women's Studies*, 25(2), 236-24.
- Molina-Neira, J. (2017): «*Tutorial para el análisis de textos con el software Iramuteq*», DHIGES Ikerketa Taldea, Bartzelonako Unibertsitatea.
- Muela, A. (2007): *Hurrei emandako tratu txarrak: atzematea, jatorria eta ondorioak*, UEU, Bilbo.
- Mullin, A. (2014): «Children, vulnerability, andemotionalharm», in C. Mackenzie, W. Rogers eta S. Dodds (ed.), *Vulnerability: New essays in ethics and feminist philosophy*, Oxford University Press, 266-287.
- National Center of Child Abuse and Neglect (1988): «*Child sexual abuse:Incest, Assault, and Sexual explotation*», US Department of Health, Education and Wealfare publication.
- Normann, E.K. (1993): «*Barn ogseksuelleovergrep [Childrenandsexual abuse]*», Ad Notam Gyldendal AS.
- Pennebaker, J.W. eta Harber, K. (1993): «A social stage model of collective coping: The Persian Gulfandother natural disasters», *Journal of Social Issues*, 49(4), 125-145. <https://doi.org/10.1111/j.1540-4560.1993.tb01184.x>
- Pereda, N. (2010): «Actualización de las consecuencias físicas del abuso sexual infantil», *Revista Pediatría de Atención Primaria*, 7(46) 273-285.
- , (2019): «How much violence is toomuch? Assessment of poly-victimization in childhood and adolescence», *Papeles del Psicólogo*, 40(2), 101-108.
- Pereda, N.; Guilera, G.; Forns, M. eta Gómez-Benito, J. (2009): «The prevalence of child sexual abuse in community and student samples: A meta-analysis», *Clinical Psychology Review*, 29(4), 328-338. <https://doi.org/10.1016/j.cpr.2009.02.007>

- Petronio, S. eta Kovach, S. (1997): «Managing privacy boundaries: Health providers' perceptions of resident care in Scottish nursing homes», *Journal of Applied Communication Research*, 25, 115-131.
- Phillips, W. (2015): *This is why we can't have nice things: Mapping the relationship between online trolling and main stream culture*, The MIT Press.
- Powell, A. eta Henry, N. (2017): *Sexual violence in a digital age*, Palgrave Macmillan.
- Prasad, V. (2018): «If anyone is listening, #MeToo: Breaking the culture of silence around sexual abuse through regulating non-disclosure agreements and secrets settlements», *BCL Rev.*, 59, 2.507.
- Radtke, L. H. (2017): «Feminist theory, Dealing with differences and negotiating the biological», *Feminism & Psychology*, 27(3), 357-377.
- Reinert, M. (1983): «Une méthode de classification descendante hiérarchique: application à l'analyse lexicale par contexte», *Les cahiers de l'analyse des données*, 8(2), 187-198.
- , (1990): «Alceste, une méthode d'analyse des données textuelles. Application au texte 'Aurélia' de Gérard de Nerval», *Bulletin de Methodologie Sociologique*, 26(1), 25-54. <https://doi.org/10.1177/075910639002600103>
- , (1996): *Alceste user's manual (version 3.0)*, Image.
- Rickett, B. eta Bewaji, O. (2020): «Emotional experiences (online talk) of male survivors of childhood sexual abuse and incest», *Psychology of Women Section Review*.
- Roesler, T.A. eta Wind, T.W. (1994): «Telling the secret: Adult women describe their disclosures of incest», *Journal of Interpersonal Violence*, 9(3), 327-338.
- Ruiz-Navarro, C. (2016): «#MiPrimerAcoso: la historia detrás del Trending Topic», *Vice Media Club*, <<https://www.vice.com/es/article/bned78/miprimeracoso-la-historia-detras-del-trending-topic>> (Kontsulta: 2021-04-15).
- Sadowski, H. (2016): «From #aufschrei to hatr.org: digital-material entanglements in the context of German digital feminist activism», *Feminist Media Studies*, 16(1), 15-69.
- Sánchez-Duarte, J.M. eta Fernández-Romero, D. (2017): «Subactivismo feminista y repertorios de acción colectiva digitales: prácticas ciberfeministas en Twitter», *El profesional de la información (EPI)*, 26(5), 894-902
- Save the Children (2001): «Abuso sexual infantil: manual de formación para profesionales», <https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/manual_abuso_sexual.pdf> (Kontsulta: 2021-04-17).
- , (2017): «Ojos que no quieren ver. Madrid: Save the Children», <<https://www.savethechildren.es/publicaciones/ojos-que-no-quieren-ver>> (Kontsulta: 2021-04-15).
- Schonhardt-Bailey, C. (2013): «Deliberating American monetary policy: A textual analysis», *MIT Press*.
- Sharaby, R. (2019): «An Anthropological View on the Taboo Incest as a Mean for Maintaining Social and Family Order», *Advances in Anthropology*, 9(04), 169.
- Silver, R.L.; Boon, C. eta Stones, M.H. (1983): «Searching for meaning in misfortune: Making sense of incest», *Journal of Social Issues*, 39(2), 81-101.
- Stoltenborgh, M.; van IJzendoorn, M.H., Euser, E.M. eta Bakermans-Kranenburg, M.J. (2011): «A global perspective on child sexual abuse: meta-analysis of prevalence around the world», *Child Maltreatment*, 16(2), 79-101. <https://doi.org/10.1177/1077559511403920>
- Summit, R.C. (1983): «The child sexual abuse accommodation syndrome», *Child Abuse and Neglect*, 7, 177-193.

- Suyanto, B.; Hidayat, M.A.; Sugihartati, R.; Ariadi, S. eta Wadipalapa, R.P. (2019): «Incestuous abuse of Indonesian girls: An exploratory study of media coverage», *Children and Youth Services Review*, 96, 364-371.
- Testoni, I.; Mariani, C. eta Zamperini, A. (2018): «Domestic violence between childhood incest and re-victimization: a study among anti-violence centers in Italy», *Frontiers in psychology*, 9, 2.377.
- Turley, E. eta Fisher, J. (2018): «Tweeting back whiles houting back: Social media and feminist activism», *Feminism and Psychology*, 28(1), 128-132.
- Urizar, M. eta Idoiaga, N. (2020): «Haurren kontrako sexu abusuak: babesa lantzen», UPV/EHU Berdintasunerako Zuzendaritza.
- Vizeu, B. eta Bousfield, A.B. (2009): «Social representation, risk behaviours and AIDS», *The Spanish Journal of Psychology*, 12(2), 565-575.
- Westerman, D.; Spence, P.R. eta Van Der Heide, B. (2014): «Social media as information source: Recency of updates and credibility of information», *Journal of Computer Mediated Communication*, 19(2), 171-183. <https://doi.org/10.1111/jcc4.12041>
- Wigginton, B. eta Lafrance, M.N. (2019): «Learning critical feminist research: A brief introduction to feminist epistemologies and methodologies», *Feminism & Psychology*. <https://doi.org/10.1177/0959353519866058>
- Xiong, Y.; Cho, M. eta Boatwright, B. (2019): «Hashtag activism and message frames among social movement organizations: Semantic network analysis and the matic analysis of Twitter during the #MeToo movement», *Public relation sreview*, 45(1), 10-23.

